



Arartekoaren 2020R-1887-18 Ebazpena, 2020ko ekainaren 5ekoa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio berrikus dezala diru-sarrerak bermatzeko errentarako eta etxebizitzarako prestazioa osagarriko eskubide subjektibo bat eten zuen ebazpen bat.

Aurrekariak

1. Herritar batek kexa bat aurkeztu zuen Arartekoan, ez baitago ados Lanbidek 2018ko azaroaren 24an emandako ebazpenarekin, hau da, diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzeko eskubide subjektiboa etetea erabaki zuenarekin.
2. Prestazioa indarrean egon zen bi urteetan bi etenaldi egon izanean oinarritu zuen Lanbidek erabaki hori. Lehenengoa 2017ko abuztuaren 3an erabaki zen, kontuan hartuta interesdunak ez zuela aurkeztu aipatutako erakundean hark eskatutako dokumentazioa.

Bigarrena, 2018ko ekainaren 23an adostutakoa, honako honetan oinarrituta zegoen:

- *“Ez baliatzea titularrari edo bizikidetz-unitateko edozein kideri legokiokeen eskubide edo prestazio ekonomiko oro ez baliatzea”.*
- *Baliabideak erantzukizunez ez kudeatzea”-*

3. Eteteko azken ebazpen hori eman aurretik, Lanbidek interesdunari eskatu zion, 2018ko maiatzaren 14an, entzunaldi-izapide bat egiteko, erakunde horrek aipatutako bi betebeharrak ez zituela bete antzeman zuelako:

a) *“Hacer valer, durante todo el período de duración de la prestación todo derecho o prestación de contenido económico que le pudiera corresponder o que pudiera corresponder a cualquiera de las personas miembros de la unidad de convivencia:*

- *Según consta en sentencia del Juzgado de fecha junio de 2017, se despacha ejecución por impago de pensión de alimentos a favor de [X] desde 1 de junio de 2015 a 30 de junio de 2017.*
- *En la misma sentencia hace mención de que el pago de la pensión de X deberá efectuarse en la misma cuenta dónde se ingresa la pensión de alimentos a favor de [Y].*





- *Deberá aclarar documentalmente si ha impulsado la ejecución del impago de la pensión de [X], y si percibe la pensión de alimentos a favor de [Y], y desde cuándo”.*

b) *“Aplicar la prestación percibida a la finalidad para la que se hubiera otorgado. Artículo 11 de la Ley 18/2008 (artículo 2.1 del Decreto 147/2010) Destinar la RGI a la cobertura de los gastos asociados a las necesidades básicas:*

- *Recibe como pago de Lanbide con fecha diciembre de 2017, la cantidad de 3792,48€ en concepto de RGI, más 250€ en concepto de PCV.*
- *El mismo día realiza dos reintegros de 2000€ por un importe total de 4000€. Deberá justificar el destino de dichas cantidades”.*

4. Kexa-idazkian adierazi zuenez, Lanbidek ez zituen bere kasuaren inguruabarrak behar bezala kontuan hartu. Ildo horretan, erakunde honek egindako errekerimendu guztiak bete zituela adierazi zuen. Hala ere, ez zuen lehenengo etenaldiaren (2017ko abuztuaren 3koa) aurkako jarrera handiagorik adierazi.

Hala ere, 2018ko ekainaren 23an erabakitako eteteari dagokionez, bi seme-alaba adingabeen mantenu-pentsiorako eskubidea baliatu izana —uneoro— argudiatu zuen, Donostiako Lehen Auzialdiko 3 zenbakiko Epaitegiak 2006ko maiatzaren 25ean eta 2010eko martxoaren 15ean, hurrenez hurren, emandako bi epairen bidez aitortua. Izan ere, entzunaldi-izapiderako errekerimendutik ondorioztatzen denez, 2017ko ekaineko epaiaren bidez, [x]ren aldeko mantenu-pentsioa ez ordaintzeagatik betearazpena agindu zen, 2015eko ekainaren 1etik 2017ko ekainaren 30era arte. Gainera, espedientean jasota dago 2018ko uztailaren 9an berriz ere eskatu zuela seme-alabei aitortutako mantenu-pentsioa betearaztea.

Bestetik, uste zuen Lanbidek ez zuela arrazoirik bere baliabideak arduraz administratzeko betebeharra bete ez izana egozteko. Horri dagokionez, gaineratu zuen Lanbidek erabaki hori hartu zuela berak 3.792,48 euro bideratu zituelako —diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren ordainketan izandako atzerapenengatik 2017ko abenduan erakunde horretatik jasotako kopurua— bere familiaren oinarrizko premiei erantzuteko. Zor horiek Lanbidek eskubidea etenda izan zuen aldian sortu zituen.

5. Puntu honetara iritsita, egokia dirudi adieraztea kasu honetan interesdunak eta haren bi seme-alaba adingabeek osatzen dutela bizikidetzaren unitatea, eta hark





ez duela diru-sarrerak bermatzeko errentatik eta etxebizitzarako errenta osagarritik ez datorren beste diru-sarrerarik.

6. Arestian aipaturiko gertaerak ikusita, Arartekoak, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren lankidetzak eskatu zuen, idatziz. Idatzian, kexagileak deskribatutako egoeraren berri eman zuen, eta txosten bat bidaltzeko eskatu zuen, Lanbidek 2018ko ekainaren 23ko etendura zergatik erabaki zuen azaltzeko. Hau da, bigarren etendura, kexagilearen prestazioen ondorengo azkentzea eragin zuena.

Aipatutako idatzian, Arartekoak alde zuzeneko zenbait gogoeta ere jakinarazi zizkion sail horri, beharrezkoak ez diren errepikapenak saihesteko, hemen errepikatutzat jotzen direnak.

7. Lankidetzak-eskaerari erantzunez, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak txosten bat sartu zuen erakunde honen erregistroan, eta bertan honako hau adierazi zuen:

“Etetea eragin zuen lehen arrazoiari dagokionez, hau da, eskubide ekonomikoak ez baliatzeari dagokionez, honako hau jasotzen da errekurtsioan:

- *Lanbidek iritziko du jasotzailea bere eskubideak baliatzeko betebeharra betetzen ari dela edo bete duela, dituen eskubideak baliatzeko betebeharraren berri emateko dokumentuan ezarritako izapideak eta epeak bete baditu edo betetzen ari bada. Ez ordaintzeak bi hilabetez luzatzen badira, abokatuari eskatu beharko zaio dagokion exekuzio-izapideei ekiteko, zor diren zenbatekoak jasotze aldera. Horrenbestez, epe hori nabarmen gainditu ostean, DSBEa eten egin da.*

Etetea eragin zuen bigarren arrazoiari dagokionez (2018/REV/049302), hau da, baliabideak erantzukizunez ez kudeatzeari dagokionez, honako hau ezartzen du errekurtsioaren ebazpenak:

- *Errekurtsioa jartzeko idatziarekin batera, errekurtsiogileak beste idatzi bat aurkeztu zuen, zeinetan azaldu baitzuen DSBEaren atzerapen kontzeptuagatik 2017ko abenduan kobratu zituen 3.792,48 euroak DSBE eta EPO prestazioak etenda izan zituen hiru hilabeteetan etxebizitzaren alokairua ordaintzen eta bere familiarentzako janaria erosten lagundu zioten pertsonen dirua itzultzeko erabili zituela.*
- *Espedientea aztertuta, ez dago hilabete horietan alokairuaren eta bere familiaren mantenuaren oinarriko beharrezkoak estaltzeko mailegurik justifikatzen duen kontraturik. Horrenbestez, (...) -i eta (...) -i sartutako*





dirua dohaintzat hartzen da. Ildo horretan, DSBEda jasotzen duen pertsona batek ezin du dohaintzarik egin kobratzen duen diruarekin; izan ere, bere oinarrizko beharrianak eslaltzeko jasotzen du, hain zuzen, diru hori”.

Hori esanda, beharrezkoak diren egitate- eta zuzenbide-elementuak daudela ulertzen denez, honako gogoeta hauek egiten dira:

Gogoetak

1. Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistemaren helburua da bazterkeria-prozesuak edo -egoerak bizi dituzten pertsonen eta familien ezinbesteko gutxieneko bat bermatzea, oinarrizko premiei erantzun ahal izateko. Era berean, herritarren eskubideak baliatzeko beharrezko baliabiderik ez dutenei gizarteratzen laguntzeko helburua ere badu⁵.

Haren ezaugarrietako bat unibertsaltasun-bokazioa da, izan ere, Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legeak (aurrerantzean 18/2008 Legea) eta Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuak (aurrerantzean 147/2010 Dekretua) horretarako ezartzen dituzten baldintzak eta betebeharrak betetzen dituzten pertsona guztiei aitortzen eta bermatzen baitaie.

Zentzu horretan, 18/2008 Legeak, 19. artikuluan, diru-sarrerak bermatzeko errentaren "titularren betebeharrak" aipatzen dira. Hala, 19. artikulua lehengo paragrafoak b) idatz-zatian xedatzen du diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen duenak prestazioaren titularrari edo haren bizikidetzaren unitateko edozein kideri legokiokeen eduki ekonomikoko eskubide oro baliatu behar duela prestazioak irauten duen bitartean; eta c) letran xedatzen du eskura dituen baliabideak arduraz administratu behar dituela, egoera ekonomikoa larriagotu ez dadin. Era berean, 147/2010 Dekretuaren 12. artikuluko lehengo ataleko b) eta c) idatz-zatietan, hurrenez hurren, gauza bera esaten da.

Orain aztertzen ari garen kasuan, Lanbideko interesdunari esleitzen dio, 2018ko ekainaren 23ko ebazpenaren bidez, bi betebeharrak ez betetzea.

2. Testuinguru horretan, aipatu beharreko lehengo gauza da hizpide dugun ebazpenari arrazoi juridikoak falta zaizkiola. Honek, arau horiek ezartzeko oinarri izan ziren oinarri arauemaileak aipatzen ditu: bi betebeharrak ez betetzea.

⁵ Ikus Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen lehengo artikulua.



Hala ere, ebazpenak ez du jasotzen Lanbideren oinarri izan ziren gertakarien aipamenik aipatutako betebeharrak ez direla bete ondorioztatzeko.

Hori esanda, egokia da gogora ekartzea administrazioak eskubideak mugatzen dituzten ebazpenak arrazoitzeko betebeharra duela, haren egitateak eta zuzenbideko oinarriak labur-labur aipatuz, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 35. artikulurekin bat etorriz (39/2015 Legea aurrerantzean). Betebehar horren ordainetan herritarrak bere eskubideak eta legezko interesak behar bezala defendatzeko eskubidea du.

Nolanahi ere, adierazi beharra dago interesdunak egozten zitzaizkion gertaeren berri zuela Lanbidek eskatu zionean, 2018ko maiatzaren 14an, entzunaldi-izapide bat egiteko, erakunde horrek aipatutako bi betebehar horiek ez zituela bete antzeman zuelako.

3. Lehenengo gogoetan adierazten zen bezala, prestazioaren indarraldian, eduki ekonomikoa duen eskubide edo prestazio oro baliatzeko betebeharra 18/2008 Legearen 19. artikulua lehenengo paragrafoko b) idatz-zatian eta 147/2010 Dekretuaren 12. artikulua lehenengo paragrafoko b) idatz-zatian jasota dago.

Hala ere, arau-agindu horiek ez dute adierazten diru-sarrerak bermatzeko errentaren hartzaileak zer ulertu behar duen eduki ekonomikoko eskubide edo prestazio gisa, eta *"eduki ekonomikoko eskubideak baliatzeko dokumentua"* izenekoan baino ez da agertzen diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularrak, 2 hilabeteko epean —mantenu-pentsiorako eskubidea aitortzen duen epaia eman zenetik zenbatzen hasita—, zor dituen kopuruak ordaintzeko egin beharreko betearazpen-izapideak eskatzeko betebeharra duela. Ondorioz, ulertu behar da ezen, aipatutako aginduaren azpian egon litezkeen egitatezko kasuen legezko tipifikazioa nahikoa ez denez, Administrazioa dela interpretazio-lanarekin dagoen lege-hutsunea estaltzen duena⁶.

Hala ere, Arartekoaren iritziz, egokia dirudi adieraztea interpretazio hori ez datorrela bat Prozedura Zibilar buruzko urtarrilaren 7ko 1/2000 Legean (aurrerantzean PZL) xedatutakoarekin; izan ere, lege horren 518.⁷ artikuluan

⁶ Arartekoaren diagnostiko-txostenean adierazi genuen bezala, Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errenta/etxebizitzarako prestazio osagarria hobeto kudeatzeko proposamenak egin zituen, 2017, 77. or.: *"Ezin da onartu eskubide bat ukatzea, etetea edo iraungitzea eragin dezaketen erabakiek babes arautzaileak ez izatea, eskuliburu aplikagarrian jasotako irizpidea oso zentzuzkoa izan arren."*

⁷ 518. artikulua. Epaia judizialean, arbitraje-ebazpenean edo bitartekaritza-akordioan oinarritutako ekintza betearazlearen iraungitzea. Epaian, auzitegiaren ebazpenean edo Justizia Administrazioaren letraduaren ebazpenean oinarritutako akzio



ezartzen da epai judizial batean oinarritutako ekintza betearazleak bost urteko iraungitze-epea duela. Gainera, aipatu epaiak aldizkako prestazioak betetzea ezarri badu —mantenu-pentsioaren ordainketarekin gertatzen den bezala—, bost urteko epe hori ordaintzera behartuta dagoenak betetzeari uzten dion egunetik zenbatzen hasten da, hau da, ez-ordaintzea gertatzen denetik, eta ez epaia irmo bihurtzen den egunetik. Hala, bada, esan behar da Lanbidek interesdunari helarazten dion eskakizuna, hots, bi hilabeteko ez-ordaintzeen ondoren, seme-alaben mantenu-pentsioa betearazteko eskakizuna, bere interpretazio-lanean izandako gehiegizko zorrozkeriaren emaitza besterik ez dela. Horrekin batera, gainera, Lanbidek ordenamendu juridikoa berritzen du, eta hori egitean, ahaztu egiten du araua gizarte-bazterkeria egoera edo prozesu batean daudenei bizitzeko gutxieneko bat ziurtatzeko xedearekin onartu zela.

Horren harira, Ararteko honek beharrezkotzat jotzen du *contra legem* interpretazio-debekuari dagokion jurisprudenzia-doktrina mahaigaineratzea. Bereziki, hitzez hitz argi dauden eta hautabidezko interpretazioetarako tarterik uzten ez duten aginduak direnean. Horretarako, Konstituzio Auzitegiaren maiatzaren 26ko 138/2005 Epaiak honako hau xedatzen du bosgarren oinarri juridikoa: *"[e]n efecto, la interpretación conforme no puede ser una interpretación contra legem, pues ello implicaría desfigurar y manipular los enunciados legales (STC 24/2004, de 24 de febrero, FJ 6). No compete a este Tribunal la reconstrucción de una norma no explicitada debidamente en el texto legal y, por ende, la creación de una norma nueva, con la consiguiente asunción por el Tribunal Constitucional de una función de legislador positivo que institucionalmente no le corresponde (SSTC 45/1989, de 20 de febrero, FJ 11; 96/1996, de 30 de mayo, FJ 22; 235/1999, de 20 de diciembre, FJ 13; 194/2000, de 19 de julio, FJ 4; y 184/2003, de 23 de octubre, FJ 7)".*

Hori gutxi balitz, esan behar da Lanbidek bere muturreraino eraman duen eskakizunak, behin eta berriz ez ordaintzeak, berekin ekar dezakeela prestazioaren titularra hainbat eta hainbat prozesu judizialetan sartuta egotea, diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidea bermatu ahal izateko.

Edonola ere, eta orain aztertzen ari garen kasuari dagokionez, kontuan hartu behar ditugu honako premisa hauek: a) kexagilearen seme-alaben mantenu-pentsiorako eskubidea aitortzen duten epaiak 2006ko maiatzekoak eta 2010eko martxokoak direla, hurrenez hurren; b) mantenu-pentsioa erreklamatzeko akzio betearazleak bost urteko iraungitze-epea duela, azken ez-ordaintzearen datatik zenbatzen hasita; c) kexa honen sustatzaileak, azken aldiz, 2018ko uztailaren 9an eskatu zuela pensioa betearazteko; eta d)

betearazlea —transakzio judizial bat edo prozesuan, arbitraje-ebazpenean edo bitartekaritza-akordioan lortutako akordio bat onesten— iraugi egingo da, epaia edo ebazpena irmo bihurtu eta hurrengo bost urteetan demanda betearazlea jartzen ez bada.





entzunaldi-izapiderako 2018ko maiatzaren 14ko errekerimenduan bertan, Lanbidek honako hau adierazten duela: *"Epaitegiaren 2017ko ekaineko epaian jasota dago betearazpena abiarazi zela Xri 2015eko ekainaren 1etik 2017ko ekainaren 30era bitartean mantenu-pentsioa ez ordaintzeagatik"*. Aipaturikoa kontuan hartzen bada, zentzuzkoa dirudi ondorioztatzea interesdunak behin eta berriz eskatu duela bere bi seme-alaba adingabeei mantenu-pentsiorik ez ordaintzeko, aitortu zitzaientetik, eta hamar urte baino gehiagoz, ez baitu utzi bere seme-alabek pensioa jasotzeko duten eskubidea iraungitzen. Ondorioz, ez dirudi okerra denik ulertzea baliatu duela. Ildo horretan, egokia dirudi orain gogoratzea 147/2010 Dekretuaren 31. artikulua xedatzen duela ebazpen judizialaren bidez aitortutako eta jaso gabeko prestazioak jasotzeko eskubidea baliatutzat joko dela betearazpen-intzidentea hasi izana justifikatzen denean.

4. Kexa honen sustatzaileari egotzitako bigarren ez-betetzeari dagokionez, agian azpimarratzekoa da entzunaldi-izapiderako errekerimenduan esleitzen zaion betebeharra ez dela geroko etete-ebazpenean adierazitako bera. Hau da, lehenengoan jasotako prestazioa eman zen helbururako aplikatzeko betebeharra dago, eta etete-ebazpenean, berriz, betebeharra baliabideak arduraz administratzeari buruzkoa da.

Hala ere, egozten zaizkion egitateak berberak direla ulertzen da. Espedientetik ondorioztatzen denaren arabera, kexa honen sustatzaileak 4000 euro bideratu zituen —diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren ordainketan izandako atzerapenengatik 2017ko abenduan erakunde horretatik jasotako kopurua— bere familiaren oinarrizko premiei erantzuteko sortu zituen zorrak itzultzeko. Zor horiek Lanbidek eskubidea etenda izan zuen aldian sortu zituen. Zehazki, bakoitzak 2.000 euroko bi ordainketa egin zituen, (.....)(r)i eta (.....)(r)i.

Horri dagokionez, Lanbideko zuzendari nagusiaren txostenetik ondorioztatzen da espedientean ez dagoela jasota hilabete horietan diru-kopuru hori maileguan jaso zuela justifikatzen duen kontraturik, hau da, (.....)(r)i eta (.....)(r)i itzultzen dien dirua, hau da, 4000 euro, dohaintza bat dela.

Arrazoibide horri dagokionez, Arartekoak uste du egokia dela orain gogoratzea, Zuzenbidean, alderdi bakoitzak frogatu behar duela arauaren egitatezko kasua, zeinaren ondorio juridikoak bere alde aipatzen baititu. Hau da, kasu honetan, prestazioak etetea erabaki aurretik, Lanbidek frogatu beharko zukeen itzulketa dohaintza bat zela. Hala ere, badirudi erakunde horrek egin zuena izan zela ziurtzat jotzea halako dohaintza bat zegoela, espedientean ez baitzegoen mailegu bati buruzko frog-elementurik.



Bestalde, adierazi beharra dago, 39/2015 Legearen 77.2 artikulua xedatzen duenez, instruktoerek honako hau erabaki behar duela nahitaez: frogaldi bat irekitzea administrazioak interesdunak argudiatutako egitateak egiazkotzat jotzen ez dituenean.

Hala ere, kasu honetan, Lanbidek zalantzan jartzen du interesdunaren alegazioak egiazkoak direla, eta, frogaldirik ireki gabe, prestazioak jasotzeko eskubidea etetea erabakitzen du. Arartekoaren iritziz, eta adierazitakoarekin bat etorriz, alegazioen egiazkotasunari buruzko zalantzak frogaldi bat irekiz ebatzi behar ziren, aipatutako erakundeak ebazpena behar besteko ziurtasunez hartu ahal izan zezan.

Bestalde, ezin dugu ahaztu guraso bakarreko bizikidetzaren unitate bat dela, diru-sarrerak bermatzeko errentaren/etxebizitzarako prestazio osagarriaren titularra dena, eta, beraz, gizarte-bazterketako arriskuan dagoena. Bi adingabe ditu ardurapean, eta prestazioen titular izateko baldintza guztiak betetzen ditu; besteak beste, baliabide ekonomikoen mugari dagokiona, eta, beraz, ez dirudi oso egokia denik 4.000 euroko itzulketa bat dela pentsatzea. Zentzu horretan, badirudi arrazoizkoagoa dela kexagilearen hipotesia, hau da, diru-sarrerarik ez dagoenez, laguntza ekonomikoa eskatu behar izan diela senide eta lagunei. Nolanahi ere, Lanbidek ordainketa hori dohaintza bati dagokiola dioen presuntzioa hori da, diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidea eteteko nahikoa frogaindarrak ez duen presuntzio hutsa.

5. Testuinguru honetan, Arartekoak adierazi nahi du 2013. urtean, Haurren Eskubideen Batzordeak, Haurren Eskubideen Konbentzioa sinatu duten estatuek hitzarmena betetzen duten jakiteko jarraipena egiteaz eta hura inplementatu behar den esparruetan behar bezala interpretatzeko orientabideak emateaz arduratzen den organoak [14. Ohar Orokorra \(ezartzen duena haurrak eskubidea duela beren interes gorena lehentasunez kontuan hartua izan dadin\)](#)⁸ egin eta onartu zuela.

Dakizunez, ohar orokor horrek ezartzen ditu haurren (eskubideen titular diren heinean) interes gorena behar bezala kontuan hartzeko betekizunak. Haurren interes gorena kontuan hartu beharra dago, batik bat, erabaki judizialean eta administratiboetan baina baita haurrei indibidualki eragiten dieten neurrietan, eta haur guztiei edo haur jakin batzuei buruzko legeak, politikak, estrategiak, programak, planak, aurrekontuak, legegintza- zein aurrekontu-ekinbideak eta irizpenak onesteko prozeduren etapa guztietan ere.

⁸ Nazio Batuak. Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena. Haurren Eskubideen Batzordea. 14. Ohar Orokorra (2013), ezartzen duena haurrak eskubidea duela bere interes gorena lehentasunez kontuan hartua izan dadin (3. artikulua, 1. paragrafoa). [Linean eskuragarri]: http://www2.ohchr.org/English/bodies/crc/docs/GC/CRC.C.GC.14_sp.pdf



Batzordeak azpimarratu du kontzeptu hirukoitza dela adingabearen interes gorena:

- Eskubide substantiboa: haurrek beren interes gorena lehentasunezkoztat jo dezaten duten eskubidea, ebaluatu egingo dena eta eztabaidatutako kontu baten gaineko erabakia hartzeko interes desberdinak neurtzean kontuan hartuko dena, eta haur bati, haur jakin batzuen talde bati edo hurrei orokorrean eragingo dien erabaki bat hartu behar den aldiro eskubide hori beti aintzat hartzeko bermea. 3. artikuluko 1. paragrafoak estatuek berez bete beharreko betebeharra ezarri du, berehala aplikatu beharrekoa dena (berehalako aplikagarritasuna) eta auzitegietan aipa daitekeena.
- Interpreta daitekeen oinarrizko printzipio juridikoa: xedapen juridiko batek interpretazio bat baino gehiago onartzen baditu, haurraren interes gorena modu eraginkorrean aseko duen interpretazioa aukeratuko da. Hitzarmenean eta horren hautazko protokoloetan ezarritako eskubideek osatu dute esparru interpretagarria.
- Prozedurazko araua: haur jakin bati, haur jakin batzuen talde bati edo hurrei orokorrean eragingo dien erabaki bat hartu behar den bakoitzean, erabakiak hartzeko prozesuak erabaki horrek interesdun haurraren/haurren edukiko dituen ondorio posibleen (positiboak edo negatiboak) balioztapena eduki beharko du barnean. Prozedurazko bermeak izan behar dituzte haurraren interes gorenaren ebaluazioak eta zehaztapenak. Gainera, erabakien justifikazioak argi utzi behar du berariaz hartu dela eskubide hori kontuan. Ildo horretan, erabakia hartzea dagokien instantziek azaldu beharko dute nola errespetatu den eskubide hori erabakian; hau da, zer jo den haurraren interes gorentzat, zein irizpidetan oinarritu den erabakia eta nola neurtu diren haurraren interesak beste gogoeta batzuekin alderatuz.

Azken batean, haurraren interes gorena kontuan hartzeak haurraren beharrianak egoki neurtzea dakar. Hitzarmenak aitortutako eskubide guztiak erabat eta modu eraginkorrean gozatuko direla bermatzea dakar, bai eta bere garapen holistikoa bermatzea ere, haurraren garapen fisiko, mental, espiritual, psikologiko eta sozial gisa hartuta.

Beraz, eskubide substantiboa da, interpreta daitekeen printzipio juridikoa eta prozedurazko araua. Horren arabera, haur bati eragingo dion erabaki bat hartu behar den bakoitzean, erabakiak hartzeko prozesuak erabaki horrek





haurraren izan ditzakeen ondorioak (aldekoak eta kontrakoak) jaso beharko ditu barnean. Erabakien justifikazioak argi utzi beharko du berariaz hartu dela eskubide hori kontuan, eta haurraren interesak zaindu direla beste gogoeta batzuekin alderatuz. Honela jaso zuen Ararteko honek 2/2015 Gomendio Orokorrean, *“Politika publikoetan adingabearen interes gorena kontuan hartzeko betebeharra, bereziki, diru-sarrerak bermatzeko sisteman”* izenburupean.

Orain aztertzen ari garen kasuan, adingabearen interes gorena nahitaez errespetatu beharrak eskatuko zukeen Lanbidek, hartutako etete-erabakiaren aurretik, behar bezala haztatzea adingabeen bizitzan izango lituzkeen ondorioen larritasuna, kide diren bizikidetzaren unitateari bere baliabide ekonomiko bakarrak kenduta.

6. Orain arte esandakoari gehitu behar zaio Lanbidek hartutako etete-erabakia bereziki larria izan zela; izan ere, prestazioa indarrean egon zen bi urteko aldi berean emandako bigarren etete bat izan zenez, azkentze-prozedura bat hasi behar zen, eta Lanbidek 2018ko irailaren 24ko azkentze-ebazpenarekin amaitu zuen.

Gainera, prestazioak azkentzea betebeharrak ez betetzearekin lotuta egon zenez, erabaki horren ondorioz, eraginpeko pertsonak ezin izan du urtebete osoan eskatu diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarria jasotzeko eskubidea. Eta, horrekin batera, prestazio ekonomikoen titular bihurtzen zuen ahulezia- eta pobrezia-egoera larriagotu egin zen.

7. Azaldutako guztiagatik, Arartekoaren iritziz, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte politiketako Sailak ez zituen behar bezala aintzat hartu kasuaren berezitasunak, kexa honen sustatzailearen diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzeko eskubide subjektiboa etetea ekarri zuenean.

Lanbidek, bere interpretazio-lanaren ondorioz, interesdunari eskatzen dio bi hilabeteko ez-ordaintzeen ondoren bere seme-alaba adingabeai aitortutako mantenu-pentsioa betearazteko. Arartekoaren iritziz, eskakizun hori erakunde horrek interpretazio-lanean izandako gehiegizko zorrozkeriaren emaitza; azken batean, legegileak araua onartu zueneko helburua bera indargabetzen baitu, oso egoera sozioekonomiko zailean dagoen familia bati prestazioa eskuratzea zailtzen baitio. Horrela, paradoxa bat gertatzen da: Lanbidek prestazioa gehien behar duena zigortzen du: emakume bat, bere kargura bi seme-alaba adingabe



dituena, eta, gainera, arazo larriak dituena seme-alaben mantenu-pentsioa jasotzeko eskubidea gauzatzeko.

Nolanahi ere, kasu honetan, badirudi zalantzarria dela esatea interesdunak ez duela baliatu bere seme-alaben mantenu-pentsiorako eskubidea, espedientetik ondoriozta daitekeelako berak behin eta berriz erreklamatu duela pentsio hori, eta ez duela, inola ere, eskubide hori iraungitzen utzi.

Bestalde, froga-elementu nahikorik ez dagoenez, Arartekoak berretsi du Lanbidek prozedura probarako irekitzea erabaki behar zuela, eta kexa honen sustatzaileari eskatu behar ziola bere baieztapenak egiaztatzeko elementu berriak aurkez zitzala. Horrek aukera emango lioke erakunde honi ebazpena behar besteko ziurtasunez eta bermearekin emateko.

Gainera, bigarren etenaldiaren larritasuna azpimarratu behar da; izan ere, prestazioaren indarraldiko bi urtekoaldi berean gertatzen denez, diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzako prestazio osagarria jasotzeko eskubide subjektiboa azkendu egiten da. Gainera, kasu honetan, ezin izango da berriz eskatu urtebeteko epean.

Azkenik, Arartekoaren ustez, ezin da alde batera utzi bizikidetzaren unitatea kexagileak eta haren bi seme-alaba adingabeek osatzen dutela, eta horiek diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioak dituztela diru-sarreraren iturri bakar gisa. Azken alderdi hori behar bezala aztertu behar zuen Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte politiketako Sailak, erabakia hartu aurretik.

Azken batean, ondoriozta daiteke Lanbidek gomendio honetan helarazitako alderdiak aintzat hartzeak kasu honetako inguruabarretara hobeto egokitzen den ebazpena ekarriko zukeela.

Jakitun gara SARS-Covid19 koronabirusaren pandemiak zer-nolako egoera sortu duen, eta nola eragin dion erakunde eta administrazio publikoen ohiko funtzionamenduari. Hala eta guztiz ere, herritarren eskubideak defendatzeko erakunde honi estatutuz esleitutako zeregina betetzeko, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11.b) artikuluan ezarritakoaren arabera eta orain arte azaldutakoa oinarri hartuta, Arartekoak honako gomendio hau egin nahi dio Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari:

Gomendioa

Azaldutakoaren arabera, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte politiketako Sailak kexa honen xede den espedientea berrikus dezala eta haren sustatzaileak diru-





sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzeko eskubidea 2018ko ekainaren 23an etetea erabaki dezala.

Era berean, eta ondorioz, prestazioa azkentzeko ebazpena berrikus dezala, prestazioa indarrean egon zen bi urteko aldian bi etete egon direlako.

